



KRITIKA

Azken kontakizuna

Irati Majuelo

Kostata baina iritsi dira», zioen argitaletxearen mezuak udazkenaren has-tapenetan. *Sonka* liburuaz ari zen, 2022ko ekainean Pasazaiteren amaiera iragarri zenetik argitaratzeko zegoen azken itzulpenaz. Iritsi da Karpowicz nobela euskal letretara, eta, harekin batera, poz txiki bat eta galera handi bat. Amaia Apalauzak eta Sonia Kolaczek euskara bikainean itzuli dute poloniera-bielorruieraz sortutako lan berezi hau, nazioarteko literatura gurera ekartzeko eremuak gutxitzen doazenean.

Bi pertsonaia batzen ditu istorio honek: Sonia eta Igor. Emakume edadetua bata, Krolowe Stojlo herrixkako biztanle bakarra, gaztetan gehiegi sentitu eta bizitakoa, eta bere historia urte luzez isilpean gordeta, helduaroa



'SONKA'
Idazlea: Ignacy Karpowicz.
Itzultzaileak: Amaia Apalauza eta Sonia Kolaczek.
Argitaletxea: Pasazaita.

behi, katu eta txakur banarekin partekatzen duena. Igor, aldiz, auto garesti batek bide ertzean utzi duen (ustezko) hirikume arranditsua da, antzerki zuzendaria eta idazlea, ego handiegikoa. Sorkuntza-krisi betean egin du topo emakume bitxiarekin, non eta Poloniaren eta

Bielorruariaren arteko muga lausoan, mapetan ageri ez den herri galdu batean, hizkuntza-zapalkuntza agerikoa den eremuan. Espero gabeko bisitaren harira, *Sonka* ulertzen du heldu dela bere unea; heriotzaren aingerua etorri zaio etxera, eta, azkenik, konta dezake bere bizitzaren historia. Igorrek, bien bitartean, antzerki obra bat dakusa *Soniaren* hitzetan, eta, hala, ohar mentalak hartzen ditu eszenografia irudikatzen zein antzezleen posizio eta keinuak zehazteko.

Geruza ugariko eleberria proposatzen du Karpowiczek; egitura konplexua duen lana da *Sonka*. Izan ere, denboran jauzi egiten du, eta oroitzapenak, gertakizunak eta errealitatearen fikzionatzea txirikordaten dira, unean-unean zein den zein argi zehaztu gabe. Nobelan aurrera egin ahala, irakurleak zalantza egiten du, ezin baitezake bereiz nork kontatzen

duen muineko istorioa: kanpo narratzaile batek, *Soniak*, Igorrek, Ignacyk? Antzerki obra al da irakurtzen ari dena, *Soniaren* esperientzian oinarritutako narrazio lan bat, edo haren testigantza zuzena? Hala ere, badirudi galdera beste bat dela: axola al du, finean?

Esperientziak artearen bidez adierazteko gaitasunaz eta aukerez hausnartzen du Karpowiczek, basakeriaz eta desohoreaz bezainbeste isiltasunaz, epaiaz. Hori hala, asmo moralizatzailerik gabe mintzatzen da gerrari buruz, eta, bide batez, azaleratzen ditu tragediaren erdian maitasunak har ditzakeen formak eta hurbilekoen heriotza desiratzerainoko minak, baita emakume arraildu baten biziraute estrategiak ere. Ertz ugariko pertsonaia eraikitzen ditu, errealitate gordina bezain sinesgaitza den istorioa kontatu ahal izateko. ●

ren asmoa Palestinako idazle eta pentsalari belaunaldi berri bat sustatzea den. Alareerren heriotzaren bihamunean, lau haizeetara zabaldu zen haren agurreko poema: *Hil behar badut*.

Abdul Karim Hashash. Palestinar ondarearen aldeko ekintzailea eta idazlea. Beduinoen kultura eta historia sakon ikertu zituen, eta herri kantuen eta atsotitz arabiarren bilketan ere nabarmendu zen, besteak beste. Urriaren 23an hil zuten, Rafahn.

Inas al-Saqa. Dr. Jihad Al-Masri. Yusuf Dawas. Shahadah Al-Buhbahan. Nour a-Din Hajjaj. Mustafa Al-Sawwaf. Abdullah Al-Aqad. Said Al-Dashhan. Saleem Al-Naffar. Zenbaki erraldioen barneko izen propio gutxi batzuk baino ez dira.

«Jalgi zaitzete gure goizetatik» zioen Darwishek *Setio egoera* poeman. Koldo Izagirrek du euskaratua: «Atarian tente zaudeten horiek, sar zaitzete./ Har ezazue gurekin kafe arabiarra/ gu bezalako gizakiak zaretela ohartuko zinatekete./ Etxe atarrietan tente zaudeten horiek/ jalgi zaitzete gure goizetatik./ Orduan ohartuko gara/ zuek bezalako gizakiak garela». ●

KRITIKA

Oinarrizko osagaiak Lehen irakurraldiak

Imanol Mercero

Haur txikiak liburuekin duten harremana objektuaren ezagutzatik hasten da: orrialdeak, irudiak, testua (bitartekariak jartzen du hori bere ahotsarekin) eta halako kontzeptuak barneratzen dituzte lehenik. Bakarkako esplorazio eta praktikak aparte, bitartekariarekin duen interakzio unea izan ohi da, eta honegatik zer eskainiko zaion zain egoten da haurra. Hasiera-hasieratik irudien identifikazioa, kantua eta elkarrizketa eskaintzen zaizkio maizenik. Eta hurrengo pausoa, istorioak sortzearena, *Goazen etxera, untxitxo*-ren pareko liburuek ematen laguntzen dute.

Liburu honen zortzi orrialdeek lau istoriotxo osatzen dituzte. Ezkerreko orrialdeetan istorioa osatuko duten pertsonaia eta elemen-



'GOAZEN ETXERA, UNTXITXO'
Idazlea: Nosy Crow.
Ilustratzailea: Carolina Buzio.
Itzultzailea: Bakun.
Argitaletxea: Ibaizabal.

tuak daude, eskuinetakoe-tan antzertokia, elementu berezi batekin: trokelatuan zehar ibilbide bat korritzen duen fitxa bat. Hain zuzen, fitxa mugitu ahala istorioa «martxan» jartzen da, bidean zehar topatzen direlarik ezkerreko orrialdean aurkeztu diren elementu horiek.

Edozein istorioren oinarrizko hiru osagaiak: jokalekua, parte hartzaileak, eta ibilbide bat. ●

KRITIKA

Imanol Mercero

Irakurtzen ikasi berri duenak *Sagu bat nire katiluan!* bezalako liburuak behar izaten ditu. Arrakasta izateko ongi etortzen dira elkarrizketa asko dituzten liburuak, irakurketa arin joaten delako. Gainera, elkarrizketak gure artean erabiltzen dugun hizkuntza informal horretan egoten dira, eta ez bestelakoetan egon ohi den hizkera «desberdina».

Azken orria urruti dago, eta asko eskertzen da liburuataletan banatuta egotea. Zeren ataletan banatutako liburuek asko laguntzen baitute liburuak nola irakurri antolatzen, batik bat atal bakoitzean gauza bakar gertatzen bada, hasi eta bukatu. Gainera, liburuekin praktika handirik ez duenarentzat, lagungarri izaten da atal bakoitzak bere izenburua



'SAGU BAT NIRE KATILUAN!'
Idazlea: Yolanda Larreategi.
Ilustratzailea: Irimarra.
Argitaletxea: Ibaizabal.

edukitzea. Izenburuak, kontatuko denaren iragarlea den neurrian, hipotesiak egiten laguntzen du.

Eta zer esan irudiez. «Irakurtzeko» liburuak dela jakinik ere, eskaintzen diren irudiek gertakari nagusien erretratu egitea asko estimatzen da, irakurritakoa ongi ulertu dela baieztatzen laguntzen dutelako, eta atsedan gune gisa ongi etortzen direlako. ●